

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2018ko herriko jaietako karroza lehiaketaren oinarriak

Tokiko Gobernu Batzordearen 2018ko martxoaren 15eko erabakiaren bidez, 2018ko jaietako karroza lehiaketaren oinarriak onartu ziren.

LEGE ETA EKONOMIA ESPARRUA

38/2003 Legeak (azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra) dirulaguntzak definitzen ditu, eta dio Administrazioak pertsona publikoei edo pribatuei egiten dizkien "diru entregak" direla, honako baldintza hauek betetzen direnean:

- Diru entrega gauzatzea onuradun diren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik egin gabe.
- Dirua entregatzea baldintza baten pean, alegia, helburu jakin bat betetzea, proiektu bat egikaritzea, jarduera bat gauzatzea, jokabide jakin bat izatea —horiek, dagoeneko gauzatuta edo gauzatzeko daudela—, edo egoera jakin bat gertatzea, eta onuradunak, ordea, ezarrita dauden betebeharrak material eta formal bete behar izatea.
- Finantzuriko proiektu, ekintza, jarrera edo egoeraren helburu izatea onura publikoko edo interes sozialeko jarduera bat edo xede publiko bat sustatzea.

38/2003 Legeak 9. artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzak eman aurretik, arauak onartu beharko dira, dirulaguntzak, hain zuzen, legeak ezarritako moduan emateko oinarriak ezartzen dituztenak. Oinarri hauen helburua da Amurrioko 2018ko jaietako karroza lehiaketaren esparrua arautzea.

KARROZA LEHIAKETAREN OINARRIAK

2018KO HERRIKO JAIK

1. ZIRKUITUA

Karrozen desfilea Santa Maria elizaren errotondan hasiko da, eta Elexondo kalean zehar Aldai kaleraino iritsiko da, gasolindegia igaro eta gero. Karrozak Araba kaleko aparkalekuan gordeko dira.

2. DESFILEAREN DATA

Desfilea 2018ko abuztuaren 16an izango da, 22:00etan.

3. PARTE HARTZAILEAK

Desfilean parte hartuko dute festetako kuadrilla guztiek, alegia, Euskotarrak, El Boli, Trot-Art, Txabolakoak, Dantza Lagunak eta Herriarenak, hurrenkera horretan. Kuadrilla guztiek izendatu beharko dute karrozen desfilearen arduradun bat, eta idatziz jakinarazi beharko diote nor izango den Festen Arloari, 2018ko abuztuaren 8a baino lehen.

Ordezkar horien ardura izango da desfilea koordinatzea, oztoporik gabe gauza dadin, ikusgarria izanez.

Era berean, desfilean parte hartuko dute "Fabian de Mariaka" eta "Mari Gabon" erraldoi bikoteak, Amurrioko buruhandiek eta gaita jotzaileek, azken horiek desfilearen buruan joango direlarik.

4. GEHIENEZKO DENBORA

Gehienezko denbora bat ezarriko da karroza bakoitzarentzat, 60 minutukoa, Santa Maria elizako errotondatik Aldai kaleko gasolindegi pareraino, eta 10 minutuko tartea karroza artean, ibilbideari ekiteko.

5. SARIAK

Hona hemen karroza lehiaketarako sariak:

1. saria: 300,00 euro.
2. saria: 250,00 euro.
3. saria: 200,00 euro.
4. saria: 150,00 euro.
5. saria: 125,00 euro.
6. saria: 100,00 euro.

Saritan, guztira: 1.125 euro.

Era berean, 200 euroko dieta ezartzen da karrozako. (200 euro x 6 = 1.200 euro).

Guztira, dietetan, 1.200 euro.

6. SEGURTASUNA

Kuadrillei eskatzen zaie ezen desfilean parte hartuko duten elementu guztiak izan daitezela seguruak, egonkortasunaren, irmotasunaren eta zirkulazioaren aldetik.

Karrozaren gehienezko altuera 5 metro izango da, lurretik gora. Udaltzaingoak karrozen altuera neurtuko du, eta 5 metro baino garaiagoak izanez gero, karroza deskalifikatu egingo da eta ezingo du parte hartu desfilean.

Karrozak plataforma batzuen gainean eraikiko dira, eta plataforma horiek hainbat neurritakoak izan daitezke; karrozen zabalera egokitu egingo da dauden plataformen arabera, 3,50 m-tik eta 4,95 m-ra bitartean.

Desfilean zehar, karroza bakoitzaren gainean, gehienez ere, 10 pertsona egongo dira, kuadrillen ordezkariak eta karroza gidatzen duen pertsonaz gain.

Galarazita egongo da 5 urtetik beherako adingabeak igotzea karrozetara desfilean zehar.

7. EPAIMAHAIA

Epaimahaia Amurrioko kirol, kultur eta gizarte elkarteetako zazpi ordezkariak osatuko dute, alde batera utzita kuadrillak.

Elkarteak txandaturaz joango dira, eta udalerriko elkarte guztiek izan beharko dute une batean edo bestean epaimahaiko kide. Haren ebazpenaren kontra ezingo da helegiterik aurkeztu, eta edozein kategoria jo ahal izango da irabazlerik gabekotzat, ez badituzte gutxieneko kalitate baldintza batzuk betetzen.

8. SARIAK ENTREGATZEA

Karrozei sariak emateko eguna abuztuaren 17a izango da, 01:30a inguruan, Juan de Urrutia plazan, oholtza gainean. Saria kuadrillak izendatutako ordezkariak jasoko du.

9. KARROZAK BALORATZEA

Alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Karrozen edertasuna, originalitatea.

- Karroza atontzen egindako lana.
- Karrozako animazioa eta girotzea.
- Desfilean zehar erakutsitako harmonia.

10. OINARRIAK ONARTZEA

Karroza lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.

Amurrio, 2018ko martxoaren 16a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA